


# EMAKUMEEN MEMORY JOLASA



Jolas honen helburua arlo askotako emakume garrantzitsuak ikusaraztea da, estereotipoak hausteko eta emakumearen egoerari buruz eztabaidatzeko.

Era berean, gure irudimen kolektiboan emakume erreferenteak eskuratu ahal izateko. Hau berdintasuna lortzeko ezinbesteko urratsa bait da.

Metodologia ludikoaren bitartez, eta memory jolasaren arauak jarraituz **jolasteko bi aukera** ditugu. Hoietako bat lehen hezkuntzako ikasleei bideratua, eta beste bigarren ezkuntzako ikasleei bideratua.

## **JOLASA ERAIKI**

*Jolasean hasi baino lehen eskulan bezala jolasa eraiki beharko da. Horretarako kartulina edo kartoizko laukiak ebakiko ditugu. Laukien neurria 7x7 cm izanik. Hau egin ondoren luzatutako materiala ebaki eta kolatu.*

### **Beharrezko materiala:**

- Kartulina/ kartoia
- Arkatza
- Kola
- Guraizeak

## **ARGAZKI- ARGAZKI MEMORY**

*\*Lehen hezkuntzako ikasleentzat bideratuta\**

### **JOLASA ERAIKI:**

- **Izena duten** argazkien bi kopia aterako ditugu bikoteak eraikitzeko.
- Argazkiak kartulinetan/ kartoietan itsatsi behar dituzte.
- Bikote bakoitzeko fitxa batek atzealdean marka bat izango du. Gometxa bat, edo figura geometriko bat...

### **NOLA JOLASTU?**

Emakumeen argazkia errepikatua bilatu behar dute. Jolasa bukatzean eta zenbat bikote dituzten kontatzean, emakumeen izenen eta lorpenei buruz hitz egingo da.

*\*Heldu batek bideratuta izan behar da. \**

## **ARGAZKI-IZEN MEMORY**

*\*Bigarren hezkuntzako ikasleentzat bideratuta\**

### **JOLASA ERAIKI:**

- Izena **EZ duten** argazkien kopia bat aterako dugu.
- Izenak eta lorpenak dituzten koadroak inprimatuko ditugu.
- Argazkiak eta informazioa duten koadroak kartulinetan/ kartoietan itsatsi behar dituzte.
- Argazkien fitxek atzealdean marka bat izan behar dute. Gometza bat, figura geometriko bat...

### **NOLA JOLASTU?**

Emakumeen argazkiak beraien izenarekin eta lorpenekin lotu behar dituzte izena, lorpena edo biak gogoratuz